


ezagutzen al
duzu Donostia?

Mojabaso

Mojabaso (Monja-Basoa dokumentuetan) Igeldon dago, komunitate politiko honen hegoaldean, Donostiako udalbarrutiaren mugetan. *Balda-errika* edo *Urteta-errika* deitzen denak banatzen du Usurbilgo udalbarrutitik. Garai batean *Mojabaso* hariztia zen baina gaur hainbeste sute pasa ondoren (hiru azken urteetan) dena otadi eta sasia bihurtu da. Batzutan ingurunea sasi bihurtzea ez da txarra zeren eta joan den urtean, aspaldiko urtetan gertatzen ez zen bezala, basurdeak azaldu ziren paraje hauetan, babesleku onak baitituzte *Mojabasoan*. 1995. urteko udazkenean Usurbil eta Aginagako ehiztari talde batek basurde bat hil zuen *Mojabasotik* hurbil *Gaztanalegiko errekan*, Garoa kanpinaren azpikaldean. *Mojabaso* oso lur-eremu berezia da. Aspaldidanik Igeldoko finka lur-eremuz handiena den *Barrenetxe* oinetxea dagokio eta *Barrenetxerekin* batera *Valdellanoko* markesaren jabea da. Bitxia baldin bada ere, joan den mendean administrazio militarrek egindako mapa batzuetan *Mojabaso* Usurbili atxekitzen diote. Usurbil aldetik *Errikoetxe* baserria dago, beraz, toponimoak garbi adierazten duenez, «herriarena» izan zen etxea; *Errikoetxerekin* batera Usurbilgo komunalak -herrilurrak- izan ote ziren *Mojabaso* eta *Errikoetxe*? Agian. *Murgil*, *Asu-*



Mojabasoko mugarriek gaur Barrenetxe, Asurriki eta Baldaberri baserrietako jabeak mugatzen dituzte.



Grabaketaren xehetasuna.

urriki eta *Baldaberri* baserriekin *Mojabasok* dituen mugarri handietan (1,20 altuera eta 0,70 metro zabalera) ba ote dago iragan zen denbora haien adierazpenik?

Akaso herri-mugarriak ziren? Bertan azaltzen diren «SS» grabaketak badirudi hori adierazten dutela.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: JOSU TELLABIDE

La Casa
del Café

- Juan Iriondo S.A. -
DONOSTIA